

Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa eta euskara: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak

(The discourse of the ecology of language and the Basque language: current situation and future opportunities)

MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA, Iñaki
Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Gizarte eta Komunikazio
Zientzien Fak. Soziologia II saila. Sarriena z/g. 48940 Leioa
i.martinezdeluna@ehu.es

Hizkuntzaren ekologiak gizarte balio propio eta berri batzuk dituela gauza jakina da. Hortik abiatuta hainbat zalantza eta galdera sortzen da. Zalantza horiek argitze aldera, gogoeta batzuei ekin zaie: Hizkuntza-ukipen egoeraren ereduak. Hizkuntza-balioak eta hizkuntza-irudikapenak euskal gizartean. Hizkuntzaren ekologiaren benchmarking-a hizkuntzen merkatuan. Zein diren hizkuntzen ekologiaren indarguneak eta ahuleziak zein aukerak eta mehatxuak.

Hitz gakoak: Sozializazioa. Motibazioak. Hizkuntza gutxiagotua. Nazionalismoa. Hizkuntzen ekologia. Hizkuntza-normalizazioa.

Es sabido que la ecología lingüística posee ciertos valores sociales propios y novedosos. A partir de ahí, surgen ciertas dudas y preguntas. Para aclararlas, se han abordado diversas reflexiones: Los modelos de situaciones de contacto lingüístico. Los valores lingüísticos y las representaciones lingüísticas en la sociedad vasca. El benchmarking de la ecología lingüística en el mercado de las lenguas. Cuáles son las fortalezas y debilidades y las oportunidades y amenazas de la ecología de las lenguas.

Palabras clave: Socialización. Motivación. Lengua minorizada. Nacionalismo. Ecología lingüística. Normalización lingüística.

Il est connu que l'écologie linguistique possède certaines valeurs sociales propres et innovantes, qui soulèvent quelques doutes et questions. Pour les clarifier, plusieurs réflexions sont abordées : Les modèles de situations de contact linguistique. Les valeurs linguistiques et les représentations linguistiques dans la société basque. Le benchmarking de l'écologie linguistique sur le marché des langues. Les forces et les faiblesses, ainsi que les opportunités et les menaces de l'écologie des langues.

Mots-clés : Socialisation. Motivation. Langue minorisée. Nationalisme. Écologie linguistique. Normalisation linguistique.

1. HIZKUNTZA-UKIPEN EGOERAREN EREDUAK

1.1. Hizkuntzen ekologia eredu berritzailea

Hizkuntzen Ekologiaren ereduak hizkuntzen arteko harremanak era berri batera ulertzen ditu, hizkuntzen arteko harreman gatazkatsuak eta baztertzailak gaindituz:

Hizkuntza-gatazkaren modeloak hizkuntzen arteko harremanak ulertzeko tresna bat aurkeztzen digu. Baina behar bada ez oso egokia. Hizkuntza gutxituaren sustapena ez litzateke egin behar beste hizkuntz(ar)en kaltez. Bestela estatu-nazioaren hizkuntza bakarraren modeloa erreproduzitzea litzateke aldi bat gehiago. Bestetik, eta nola nahi ere, hizkuntza-komunikazio bat beharrezkoa da hizkuntza-komunitate desberdinen artean. Hizkuntzen arteko bizikidetzatza, hizkuntzen arteko elkarbizitza litzateke helburua. (Coyos 2009: 19).

Hizkuntzen ekologiaren planteamendua ez da orain eta euskararen inguruan edo Euskal Herrian sortua, baizik eta lekutan eta duela hamarkada batzuk landutako planteamenduetan, adibidez: Carl Voegelin 1964an, Einar Haugen 1972an, Mühlhäusler 1996an eta abar.

Estatu-nazioaren hizkuntza bakarreko giroa mundu osoan nagusia zen une batean, oso bestelakoa den *Hizkuntzen Ekologia* planteamendua agertu zen.

Hizkuntzen ekologiak edo ekolinguistikak hizkuntzen eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen ditu, esan nahi baita hizkuntza beraien arteko harremanak, eta hizkuntza horien eta gizartearen artekoak, gizartea hizkuntzen ingurumena delako. Noski modelo hori metafora bat da, baina erlazio konplexu horiek ulertzeko laguntzen gaitu, printzipio deskriptibo eta esplikatzailea ekarriz.

Modelo deskribatzaile eraginkorra izanez gain, hizkuntzen ekologia hizkuntza-desberdintasunaren mantentzeaz arduratzen da, hizkuntzek denek, “txiki”ek barne, gízadi osoari aberastasun ematen diotelako argudiatuz.” (Coyos 2009: 27).

Eta plantamendu moral horrekin bat egiten duen ikuspuntu zientifiko berria eraikitzen saiatzen da Hizkuntzen Ekologia diskurtsoa, Coyosen aburuz (Coyos 2009: 19).

Hona hemen hizkuntza-joera kontrajarriak laburtzen dituen eskema bat, Yukio Tsuda-k garatua eta Robert Phillipson-engandik hartua (Phillipson, 12-10-2009):

La difusión del inglés o de la ecología de las lenguas

La globalización no es un fenómeno que haya aparecido recientemente, aunque esa impresión cree el pensamiento académico a la moda. Lo que es nuevo es la amplitud y profundidad de la penetración global de las culturas. El especialista japonés en comunicación, Yukio Tsuda, expresa agudamente las varias dimensiones de la actual política lingüística mediante dos paradigmas concurrentes.

Paradigma: difusión del inglés

- A. capitalismo
- B. ciencia y tecnología
- C. modernización
- D. monolingüismo
- E. globalización e internacionalización ideológicas
- F. transnacionalismo
- G. estadunidensización y homogenización de la cultura mundial
- H. imperialismo lingüístico, cultural y mediático

Paradigma: ecología de las lenguas

- 1. punto de vista que respeta los derechos humanos
- 2. igualdad en comunicaciones
- 3. plurilingüismo
- 4. conservación de lenguas y culturas
- 5. protección de la soberanía nacional
- 6. estímulo para el aprendizaje de lenguas extranjeras

Hizkuntzen Ekologia ikusmoldearen abiapuntua <hizkuntza-ekosistema> bezala ulertzea da, non hizkuntza guztiek duten leku zehatza oreka zail eta hauskor baten baitan.

Hizkuntzen ekologiak gizarte balio propioak eta berri batzuk dituela gauza jakina da. Baina, zer-nolako aldea dute balio berri horiek, gaur egun eta gurean nagusiak diren hizkuntza-balioekin? Galdera horri erantzun nahirik, ikus dezagun ondoko lerroetan, zehatz-mehatz, hizkuntzen ekologiak gaingitu nahi duen Estatu-nazioaren eredua zertan datzan.

1.2. Estatu-nazioen hizkuntza bakarraren eredua

Historian zehar ohikoak izan diren hizkuntzen arteko harreman gatazkatsuek, hizkuntza ahulen ordezkapena eta, askotan, heriotza ekarri dituzte. Kasu horietako bat Estatu-nazioen hizkuntza bakarraren eredua da, hau da, Yukio Tsuda-k aipatzen duen “ingelesaren hedapenaren paradigma”rena.

Harreman mota hori ulertzeko hizkuntza-darwinismoaren planteamendua izan da oinarria: *“Hizkuntzek Darwinen eboluzio-teorien arabera bilakaera dutela pentsatzen duen hizkuntza-ideologia. Horren arabera, hizkuntza-komunitate indartsuenak gailenduko lirateke, ahulenak baztertuta.”* (UZEI: 22- hizkuntza-darwinismoa).

Hizkuntza-darwinismoa: <survival of the fittest> edo <indartsuenaren edo sa-soikoenaren biziraupena> Herbert Spencer-ek sortutako leloa bada ere, Darwin-ek bere egin zuen ideia hori eta bere eskutik hedatu zen munduan barna.

Hizkuntza-darwinismoak dioenez hizkuntza egokienek bakarrik egiten dute aurrea, horren gaituak ez diren beste hizkuntzak bazterrean geldituz. Ideia horretan, hizkuntzaren dimentsio sozial, politiko eta kulturalak ahaztuta edo ezkutatuta gelditzen dira, era horretan nagusitasun ekonomiko edo politikoa oinarri duten hainbat jardun legitimatuz. Hortaz, planteamendu honek hizkuntzen barne-ezaugarriak (*corpusa*) eta hizkuntzez kanpokoak (*statusa*) nahasten ditu, inposizio eta inperialismoren emaitzak diren egoera batzuk (*statusa*) justifikatuz, barne-ezaugarrien (*corpusa*) ondorioak bailiran. (Moreno Cabrera 2008: 19-20, 22).

Ikus dezagun nola aukeratzen diren hizkuntza batzuk egokitatzat jotzeko, gainontze-koak hautu horretatik kanpo geldituz. Moreno Cabrera-ren (2008: 16-17) esanetan, bi ideia-gako daude nazionalismo lingüistikoaren ideologia ulertzeko:

- a) Hizkuntza bat edo hizkuntza-aldaki bat nazio-hizkuntzat hartzen denean, hizkuntza tokian tokikoa (carácter local) izatetik, maila goreneko hizkuntza izatera igarotzen da, erregionalismo eta *txokokerien* gainetik geldituz. Horren ondorioz, hautatua izan ez diren gainontzeko aldakiak edo hizkuntzak ez bezala, nazio-hizkuntza hori neutraltzat jotzen da etnikoki.
- b) Beste hizkuntza-aldakiak (edo beste hizkuntzak) nazio-hizkuntzaren bigarren mailako aldaerak (edo hizkuntzak) baino ez dira, ideia horrekin elebitasunari uko eginez: Estatu-nazioaren hizkuntza bakarra da.

Hau da, mekanismo horien eskutik, Estatuak berak sortarazten ditu gutxiengo etniko, kultural eta linguistikoak, Estatu-nazioaren erdigune izateko hautatua izan ez diren talde etniko, kultural edo linguistikoak zentraltasun horretatik kanpo uzten di-tuenean. Moreno Cabrerak, May-ren iritziak baliatuta, horrela dio:

...el Estado-nación moderno crea minorías sociológicas mediante el establecimiento de una lengua y cultura cívicas que está en gran medida limitada a la etnia dominante o <Staatsvolk>, que es representada por él. (...)

Estos intereses particulares de una determinada etnia se presentan como intereses de toda la sociedad pluricultural y plurinacional y se utilizan para presionar, marginar y mantener en una posición de subordinación a las etnias minoritarias o no dominantes. (Moreno Cabrera 2008: 58-59).

Hortaz, hizkuntza bakarraren eredua ezartzean **hizkuntza-darwinismoa** bolo-bolo erabiltzeaz gain, hizkuntza-nazionalismoak beste argudio eta sasi-arrazoi bat ere baliatzen du, Moreno Cabrerak dioenez: hizkuntza-organismo aske edo independentea-ren ustea.

Horren arabera, hizkuntzak euren hiztunengandik eta hizkuntza-komunitateengan-dik aske edo independenteak dira, eta erabiltzaileek eta giza taldeek elkarrekin ko-munikatzeko tresna autonomo gisa baliatzen dituzte. Planteamendu horren aurrean, aldiz, Ritt-ek dio hizkuntzak <egokitze-sistema konplexuak> (*sistema adaptativo com-plejo*) direla, konplexutasun horretan bi moduko interakzioa aurkituz: a) ukipen egoe-ran dauden hizkuntzen arteko elkar eragina; b) hizkuntzen eta euren erabiltzaileen (hiztunak eta giza taldeak) arteko elkar eragina. (Moreno Cabrera 2008: 28).

Estatu-nazioaren hizkuntza bakarraren defentsan, aldiz, konplexutasun hori ahaztuta gelditzen da, eta hautatua izan den hizkuntzaren nagusitasuna berezkotzat jotzen da; alegia hizkuntzaren beraren ustezko gaitasun, balio eta erabilgarritasun handiagoaren (*corpus egokiagoa*) ondorioa:

Un elemento clave de la ideología del nacionalismo lingüístico es presentar la imposición de una lengua estándar como un proceso natural de desarrollo gramatical de las lenguas, en el que los hablantes acaban aceptando la lengua más cómoda o comprensible para ellos de acuerdo con los patrones de confluencia lingüística... (Moreno Cabrera 2008: 63).

Con ese adjetivo <natural> se intenta ocultar o, al menos, disimular, no solo los actos de planificación lingüística conscientes y dirigidos a unos determinados fines que están detrás del progreso del castellano como lengua nacional desde, al menos, el siglo XIII, sino también el hecho de que el poder económico, político o militar supone que los estamentos que tienen ese poder pueden permitirse el lujo de exigir a los demás que entiendan y hablen su variedad lingüística. (Moreno Cabrera 2008: 65-66).

La ideología del nacionalismo lingüístico intenta por todos los medios disimular u ocultar esos componentes que hacen que la supremacía lingüística sea un reflejo directo de la supremacía política de un estamento privilegiado, recurriendo a la idea de que, por ejemplo, el castellano, el francés o el alemán se han impuesto de forma natural por ser las lenguas más aptas para la comunicación general, las de entendimiento más fácil por parte de la población. (Moreno Cabrera 2008: 74).

El nacionalismo lingüístico se basa en la idea fundamental de que la variedad lingüística privilegiada portadora de la unidad nacional es superior intrínsecamente, por sus propiedades características internas, a las demás y, por tanto, está destinada a arrinconar y eliminar a las demás variedades lingüísticas que, en un proceso descrito desde un evidente darwinismo social lingüístico, no están en condiciones de competir con ellas por ser menos aptas. Llegamos así a la discriminación lingüística, que tiene su expresión más habitual en el bilingüismo sustitutivo... (Moreno Cabrera 2008: 76).

Baina, argi dagoenez, hizkuntzak aupatuak eta goratuak ala gutxietsiak eta baztertuak izateko arrazoiak ez dautza hiltunen eta giza taldeen premiei aurre egiteko hizkuntza horiek duten berezko gaitasunean, baizik eta hiltunek edota komunitateek pairatzen dituzten egoera sozial, ekonomiko, politiko edota kulturealean.

Halako ideiak modu errazean zabaltzen dira Estatu-nazioak dituen bitarte botere-tuen eskutik eta gizartearen sektore askok beren egiten dute.

Las variedades habladas por grupos política y económicamente poderosos son las únicas con probabilidades de ser seleccionadas como base de una lengua estándar [...] Solo los poderosos pueden promover la aceptación de la norma emergente, ya que únicamente ellos gozan de suficiente prestigio social como para provocar que otros grupos sigan sus preferencias lingüísticas. (Penny 2000: 295). (Moreno Cabrera 2008: 66-67).

Areago, askotan hizkuntza gutxiagotuen komunitateak eta hiltunek ere ideia horiek barneratzen dituzte, era horretan Estatu-nazioaren hizkuntzak dituen hizkuntza-lehiakideak neutralizatuz eta mende hartuz:

[...] el secreto de la dominación estriba en colonizar el imaginario del otro imponiéndole el mundo de uno como el único posible. (Lizcano 2006: 58; in Moreno Cabrera 2008: 22).

1.3. Indarrean dagoen hizkuntza-eredua

Espainiako eta Frantziako Estatu-nazioaren hizkuntza-eredua horixe bera da; alegia boteretsuek ezartzen eta inposatzen duten hizkuntzarena. Adibidez, Espainiako kasuaren abiapuntu eta erro historiko mota horiek ondo islatzen dituzte honako hitzok:

Según afirma Fernández Ordóñez (2004), en el siglo XIII se dieron los primeros pasos para la formación de esa lengua estándar a partir del castellano. El hecho de que la variedad lingüística por la que se optó para construir la lengua estándar fuera la castellana y no la gallego-portuguesa, la astur-leonesa o la navarro-aragonesa tiene mucho que ver con el poder político, jurídico y económico. (Moreno Cabrera 2008: 67-68).

En resumen, el predominio del castellano (...) no obedece a un proceso de confluencia lingüística más o menos natural, sino a una serie de factores extralingüísticos en los que el poder político y económico desempeñan un papel crucial. (Moreno Cabrera 2008: 74).

Baina Moreno Cabreraren ustetan, Espainian aspaldian abiatu zen Estatu-nazioaren ereduak indarrean dirau, oraindik ere:

Hay que observar, además, que la política de inmersión lingüística castellanista del Estado-nación español no es algo del pasado sino que sigue vigente en el presente. [...] Esto, por supuesto, margina a millones de ciudadanos del Estado español que no tienen garantizado el derecho a escolarizarse, declarar ante los tribunales, hacer peticiones a la administración o registrar un producto en su lengua nativa o primera fuera de su comunidad de origen (y muchas veces y en muchos ámbitos ni siquiera dentro de ella). (Moreno Cabrera 2008: 197-198).

Moreno Cabreraren hitzon adibide ezin hobeak ditugu 2009an bertan prentsak eman dizkigun jarraian aurkeztuko hiru albisteak:

1. ADIBIDEA:

NOTICIAS de Gipuzkoa

Miércoles, 02 de septiembre de 2009

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2009/09/02/sociedad/gipuzkoa/d02gip10.1577058.php>

Bono 'entierra' la posibilidad de hablar euskera en el Congreso de los Diputados. Alega que la medida «tiene difícil encaje jurídico»

Idoia Alonso

Donostia. El presidente del Congreso de los Diputados, el socialista José Bono ha decidido enterrar la posibilidad de utilizar las lenguas cooficiales en el Pleno de la Cámara...

(...)

Su antecesor en el cargo, el también socialista Manuel Marín, protagonizó en 2005 un acto de gran trascendencia al permitir por primera vez que la representación vasca, catalana y gallega pudieran dirigirse a la Cámara en sus respectivas lenguas de forma transitoria hasta la redacción de un nuevo reglamento que contemplase este derecho.

Sin embargo, tras sólo dos sesiones plenarias, sólo se ha podido hablar castellano en la tribuna del Congreso. La presión partidista y mediática española llevó a Marín a retractarse y reconocer que «la Presidencia del Congreso se ha equivocado».

2. ADIBIDEA:

Euskara, mandiorako

erabili.com / Bestelakoak / 2009-05-18

http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1242630401

Jaime Mayor Oreja, Espainiako Alderdi Popularrak (PP) Europako Parlamenturako hauteskundeetara aurkeztu duen hautagaiak, goraiatu egin du bere birraitona bizkaitarrak etxean euskaraz egitea debekatu izana.

"Nire birraitona ahalegindu zen seme-alabak ez zitezen itxi mandioan. Etxean euskaraz egitea debekatu zuen, espainolez ondo ikas zezaten", esan zuen Mayor Orejak joan den astean Bartzelonan emandako hitzaldi batean. (...)

Adibide horrekin, Kataluniako hezkuntza sisteman indarrean den hizkuntza politika kritikatu nahi izan zuen PPren hautagaiak; katalanaren erabilera eta murgiltze sistema, hain zuzen ere. Kataluniako PP kanpaina indartsua ari da egiten hango hezkuntzako legearen kontra, baita polemikoa ere. Besteak beste, iragarki batean, esku-burdinekin lotutako haur baten irudia erabili dute popularrek, etorkizunean *"miseria moral eta ekonomikoa besterik ekar ez dezakeen"* hizkuntza ereduaren kontra egiteko.

Europar, espainiera

Mayor Orejaren arabera, kataluniar, galiziar eta euskal herritar guztiek bat egin behar duten helburu amankomun nagusia zera da: espainiera Europako erakundeetan bigarren hizkuntza nagusia izatea (ingelesaren ondotik). Hartara, Oreja ez dago Espainiako estatuko gutxitutako hizkuntzen erabilera Batasun Europarraren erakundeetan bultzatzearekin ados.

Hain da kezkarria Moreno Cabrerarentzat mota horretako planteamendua, ezen berari aurre egitera egiten baitie deia Espainiako Autonomia Erkidegoei:

El problema no es tanto que existan medidas que protegen el castellano, sino que todavía existe (...) una fuerte y contundente política de Estado monolingüista castellana ante la cual las Comunidades Autónomas no pueden quedar inactivas, si es que no quieren que sus lenguas <cooficiales> vayan devaluándose cada vez más. (Moreno Cabrera 2008: 201).

Las Comunidades Autónomas tienen la obligación de promover sus lenguas <cooficiales> en el mayor número de ámbitos posibles para elevarlas, hacerlas útiles, dignificarlas y para evitar (...) la idea de que las lenguas autonómicas no sirven, no son útiles. Esta promoción solo puede basarse en el principio de la discriminación positiva, si es que se desea que tenga algún éxito... (Moreno Cabrera 2008: 201).

3. ADIBIDEA:

La Cámara vasca pide valorar menos el euskera en la Sanidad.

PSE, PP y UPyD aprueban una moción que insta al Gobierno vasco a buscar «el equilibrio» con otros méritos.

J. M. I VITORIA

<http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/20091027/pvasco-espana/camara-vasca-pide-valorar-20091027.html>

El Parlamento vasco pidió ayer al Gobierno de Patxi López que realice «una valoración adecuada del euskera como mérito» en las ofertas públicas de empleo (OPE) de Osakidetza. Para lograr ese objetivo, la mayoría formada por los grupos del PSE, PP y Unión Progreso y Democracia (UPyD) emplazó al Departamento de Sanidad a buscar «el equilibrio» entre la puntuación que corresponde a la lengua vasca y a otros méritos profesionales.

La iniciativa aprobada en la Cámara coincide con los postulados del consejero de Sanidad, Rafael Bengoa, que es partidario de que el euskera no tenga tanta valoración en comparación con otros conocimientos académicos. (...)

La discusión sobre la euskaldunización del Servicio Vasco de Salud fue planteada ayer en el Parlamento de Vitoria por UPyD, quien expuso la situación de 70 auxiliares administrativos que quedaron excluidos de las adjudicaciones de destinos en una OPE convocada en 2006. El motivo era que carecían del perfil lingüístico 2.

Al final, socialistas, populares y UPyD pactaron una moción en la que se solidarizan con los trabajadores afectados, por si «han podido ser discriminados» con una «excesiva valoración del euskera en relación con otros méritos». También piden al Departamento de Sanidad que realice un informe sobre las vulneraciones de derechos que hubieran podido producirse; y le insta a adoptar «cuantas medidas sean necesarias para que se garantice el principio de acceso a la función pública en condiciones de igualdad».

(...)

El PP aseguró ayer, tras el acuerdo alcanzado con PSE y UPyD, que «nos acercamos al fin de la política de discriminación lingüística en las ofertas públicas de empleo de Osakidetza». La parlamentaria popular Laura Garrido indicó que su partido considera «clave» acabar con la «sobreevaluación» del euskera, que «ha provocado una fuga de profesionales», impide a otros colegas establecerse en Euskadi y afecta a «la calidad asistencial».

Eusko Legebiltzarreko alderdi politiko konstituzionalistek <berdintasuna eta diskriminazio eza> kontzeptuak bolo-bolo erabiltzen badituzte Estatu-nazioaren hizkuntza den gaztelaniaren alde egiteko orduan, Frantziako kasuan beste ideia bat erabiltzen da, norberaren jatorrizko hizkuntzari uko egin eta frantsesaren defentsan irteten deanean: “...ofizialki interpretatuko da aberriaren (Frantzia) eta askatasunaren aldeko ekintza gisa.” (Suberbiola 2008: 11).

Arestian eman ditugun azalpenak abiapuntu, unea iritsi zaigu lehenengo galdera bat egiteko: Gaur egun indarrean dauden hizkuntza-balioekin zer-nolako aldea du hizkuntzen ikuspuntu ekologikoak? Erantzuna: alde ikaragarria dago gure gizartean egun indarrean dauden hizkuntza-balioen eta hizkuntzen ekologiak bere baitan dakartzan balioen artean. Izan ere, Frantzian eta Espainian erabilitako argudioak batzuk izan edo besteak izan, adibide horietan ez da antzematen hizkuntza-ekosistemaren ikuspuntuaren inolako aztarnarik eta bai, ordea, hizkuntza-eredu gatazkatsuenak:

- ez dira hizkuntza guztiak kontuan hartzen, ez eta maila berean jartzen ere.
- hizkuntza-ekosisteman dauden hizkuntzen arteko desorekak gainditzeko edo apaltzeko ez da planteamendurik (Moreno Cabreraren <disxriminación positiva>) egiten, kontrakoak baizik: boterearen hizkuntza (gaztelania zein frantsesa) goraitzen eta lehenesten da, bide horretatik euskara desagerrarazten den arren.
- hiztunen eskubideak kontuan hartzean hizkuntza hedatuenean hiztunenak aipatzen dira (gaztelerazko hiztunak ez diskriminatzea, adibidez), euskal hiztunek dituztenez ahaztuz.

2. HIZKUNTZA-BALIOAK ETA HIZKUNTZA-IRUDIKAPENAK EUSKAL GIZARTEAN

Estatu-nazioaren hizkuntza-ereduaren eta hizkuntzen ekologiaren ereduaren antean dagoen amildegia behin ezagututa, azter dezagun gizartean dauden hizkuntzen inguruko irudikapenak nolakoak diren. Zein planteamendutik egongo da gertuago euskal gizartea, lehenengotik ala bigarrenetik?

2.1. Euskara ikasteko edo ez ikasteko arrazoiak

Euskal Herri osoko herritarretatik abiatuta, mota jakin batekoak har ditzagun kontuan: “*euskara ikasten ari direla, ikasten lehenago arituak direla, edo baldintza egokiak izanez gero ikasi nahiko luketela*” diotenak, hain zuzen, horretarako Erramun Baxok eta beste batzuek egindako lana baliatuta (Baxok *et al.* 2006).

Herritar horiek, euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko aipatzen dituzten motibazioak, nortasunezkoak edo identitarioak dira, gehienbat; honakoak, hain zuzen: *Herri honetako hizkuntza delako; Euskal herritar naizelako; Nire erroak aurkitzeko.*

Dena den, motibazio komunikatiboek (*Euskaldunekin komunikatu ahal izateko*) edota pragmatikoek (*Lana aurkitzeko/Lanerako behar dudalako; Seme-alabak ikasten ari direlako, Ikasketengatik*) ere badute garrantzia, neurri apalxoagoan bada ere (Baxok *et al.* 2006: 63)¹.

1. Irudietako portzentajeen batuketa ez da 100 erantzun bat baino gehiago ematea posiblea zelako.



Har ditzagun, bestetik, “*euskara ikasten ez direla ari eta horretarako asmorik ez dutela*” dioten euskal herritarrak. Euren jarrera hori justifikatzeko aipatzen dituzten arrazoiaren artean, honakoak nagusitzen dira: pragmatismoa (*Ez dut behar, denek dakite erdaraz; Nahiago dut denbora beste zerbaitetan erabili; Dakidanarekin moldatzen naiz; Ez dut behar lanerako/Lana aurkitzeko; Ez dut interes/arrazoirik ikasteko*). Baldintza edo muga pertsonalak ere aipatzen dira (*Zaharregia naiz ikasteko; Zaila da*) eta euskararekiko distantzia politiko-ideologiko zein identitarioa (*Euskara politizatua dago; Ez naiz euskal herritar sentitzen; Euskal kultura ez zait interesatzen*). Baita iraganekeo pasadizo edo esperientzia desatsegina ere (*Euskara oztopo izan da niretzat iraganean*) (Baxok et al. 2006: 65).



Euskara ikastera mugiarazten duten edo mugiaraziko luketen aitortutako motibazio motei erreparatuta, argi dago hizkuntzen ekologiaren ideiarekin bat egiten duen argumentu argirik ez dela antzematen; adibidez, *hizkuntza aberastasuna eta oreka bermatzearren* tankerako esaldiren bat; eta beste horrenbeste gertatzen da ikastera animatu ez izanaz aipatzen diren arrazoiaren artean ere. Arrazioa da, izan ere egileek ez zuten hizkuntzen ekologiaren arrastorik jaso zezakeen esaldi egokirik inkestaturen eskura jarri horiek aukera zezaten.

Zergatik, baina? Hain egon da urrun ñhain izan den ezezaguna- hizkuntzen ekologiaren ikuspuntua gure gizartean, non euskal soziolinguistikaz arduratzen direnek ere ez dieten halako planteamenduei lekurik eskaini. Guztiz argigarria!

Horrek ez du esan nahi Euskal Herriko gizartean hizkuntza-aniztasunarekiko inolako interesik ez dagoenik. Neurriren batetan egon egongo da, baina hizkuntza-ekosistemaren eta, zehatzago, euskararen inguruan eratzen diren irudikapenetan horiek ez dira lehentasunezkoak. Alegia, gure gizartean askoz indartsuagoak diren bestelako arrazoi motak gailentzen dira euskal gizartearen hizkuntza-irudikapenetan eta, halakoen artean, identitarioak eta pragmatikoak dira azpimarratu beharrekoak, bereziki.

2.2. Euskararen inguruko irudikapenak

Beste ikerlan bat baliatuko dugu euskararen inguruko irudikapenak arakatzeko, euren gizarte ingurunearen berri ematerakoan hain gardenak diren nerabeen eskutik, hain zuzen.

Jone Miren Hernandezek egindako ikerlan kualitatibo batean bi galdera egiten zizkien 12 urte inguruko neska-mutilei: a) Ea hizkuntza guztiak berdinak ote diren; b) Ezezkotan, zeren arabera sailkatuko lituzketen. (Hernandez, 2000: 32) Egileak ateratzen zituen hainbat ondorio interesgarriaren artean, ideia soil hau azpimarratuko dugu, gehiegi ez luzatzearren, non argi gelditzen den gaztetxoek ongi antzematen dutela hizkuntzen merkatuan euskarak duen kokapen erlatibo ahula:

Lehenengo diskurtsoak hizkuntzak hitz egiten diren lurraldearen arabera sailkatzen ditu. Ikuspuntu honetatik, herrialdeak edo lurraldetasunak hizkuntza bera eta bere oinarriak definitzen dituzte neurri handi batean. Alde horretatik, hizkuntza handiak edo txikiak, boteretsuak edo ahulak izaten dira baldin eta dagozkien lurraldeak ezaugarri horiek baldin baditu.

Herri bakoitzak bere hizkuntza definitzen duen heinean, hizkuntza ezberdinen elkarbizitza zailtzat jotzen da eta hizkuntza aniztasunaren aukera ukatzen du. Diskurtso honek hizkuntzen arteko borroka azpimarratzen du, ikuspuntu baztertzailera aplikatuz. Irizpide nagusia da hizkuntza ezberdinen balioa bakoitzak duen indarrean edo erabilgarritasunean kokatzen dela. (...) Ezberdintasun horiek botere ezberdintasunak dira, eta, askotan, aniztasunak ekar zezakeen aberastasuna deuseztatu egiten da. (Hernandez, 2000: 33-34).

...hizkuntza handien hedapenaren garaian bizi dira gazte hauek eta gaztelera, frantse-
sa, ingelesa eta alemana eskura dituzte. Hizkuntza horiek boteretsuak, hiritar-
rak, konplexuak, irekiak, zabalak, eta aukera ugariak izango lirateke. Gauzak horrela,
euskarak suposatzen duen ñabardura ez da kasu gehienetan erakargarria gertatzen,
gazte unibertsoan hizkuntza txikitat, sinpletzat, mugatutzat eta gatazkatsutzat har-
tzen baita. (Hernandez, 2000: 81).

Lehenengo atalean azaltzen genituen Estatu-nazioaren diskurtsoaren seinalea eta ondorioa agertu zaizkigu gaztetxoek iritzietan: hizkuntza handiak eta txikiak, botereitsuak eta ahulak, noranahikoak eta leku gutxitara joateko balio dutenak... Azken finean, hizkuntzen hitzunei dituzten status eta boterearen arabera ikusten dituzten hizkuntzak ere. Bestela esanda, hizkuntzen ekologiaren planteamenduaren beste muturreko irudikapenak.

2.3. Balio, iritzi eta jarreraren egoera EAEn

Euskaraz ez dakitenen biztanleen artean, EAEn, Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreñak egindako ikerlan interesgarri batek horrela dio: *“Gehienak prest agertu dira beren seme-alabek euskara ikas dezaten ahalegintzeko...”* eta, gainera, honako jarraera agertzen da hizkuntza-aniztasunari dagokionez:

Hizkuntza-aniztasunari dagokionez, %69,4k arazotzat hartuko luke euskara desagertzea; oster, euskaraz ez dakiten pertsonen aurrean euskara erabiltzea dela eta, %58,2ri ez zaio axola bere aurrean euskaraz hitz egitea nahiz eta berak ez ulertu. (Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009: 301-302).

Euskaraz ez dakitenen EAEko biztanleei buruz ari garela gogoraraziz, *“Administrazio publikoak euskararen alde egiten dituen ekimenei” dagokienez (...)* adostasuna erakutsi dute zenbait neurri dagokionez, (...):

- *“Ezin da euskara galtzen utzi”*
- *“Ados nago euskara bultzatzearekin”*
- *“Euskara errespetatu behar da”*

Dena den, konpromisorik gabeko aldeko asmo anbiguo eta zehaztugabe horien atzean, ez da konpromiso sendorako jarrera hedaturik antzematen: *Ostera, neurri zehatzak proposatu dituzten itemei dagokienez, ez da adostasunik lortu.* (Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009: 300).

Euskara ez dakitenen heren batek, gutxi gora behera (%30), **ez ditu ongi ikusten** honako neurri edo iritzi hauek:

- *“Arriskuan dagoen hizkuntza batek bizirik jarraitzea lortu nahi bada, horren aldeko neurriak hartu behar dira, nahiz eta guztien gustukoak ez izan”*
- *“Ezinbestekoa da euskara sustatzeko diru publikoa gastatzea”*
- *“Euskararen alde hizkuntza-politika izaten ari den kostuak arrazoizkoak dira”*

Eta EAEko erdaldunen gero eta ikuspuntu zorrotzagoak adieraziz, lautik hiruk (%75) bat egiten dute hainbat kritiketan:

- *“Euskara azkarregi berreskuratu nahi izan da”*
- *“Oposizioak egiteko euskara jakin behar dela eskatzea onartezina da, diskriminatzailea baita”*
- *“Ez litzateke euskararen erabilera Euskadiko biztanleria guztiarengana zabaltzen ahalegindu behar”*

Azkenik esan, badagoela adostasunik lortu izan ez duen beste ideia bat:

- “Ezinbestekoa da jendaurrean lan egiten duten funtzionarioek euskaraz hitz egin dezaten eskatzea”. (Aморrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009: 300-301).

Ikerlanaren egileek egiten duten balantzean, ideiak interesgarriak bezain kezkarriak jartzen dituzte mahaigainean:

Adostasun-maila bat lortzeko saiakerak ez du fruitu askorik eman, euskararen aldeko printzipio orokorren adierazpen bat edo oso orokorrean egin diren balorazio positiboak izan ezik.

(...)

Erabateko adostasuna baldintzatzen hartuz gero, ez al litzateke eragozpen izango euskararen aldeko edozein ekimen burutzeko? (Aморrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009: 302).

Bistan da, EAEko gehiengo erdaldunaren artean euskararekiko atxikimendua ahu-la eta abstraktua dela, lotura eta konpromiso sendorik gabea, sektore hori bere erdal elebakartasunean eta euskal gizartearen egoera diglosikoan eroso sentituz.

Argi dago ere, gizarte sektore hori ez dela jabetu hizkuntza-ukipenaren jokoaz eta arriskuaz: gutxitua izan den hizkuntza batek berreskurapenak, kontrako baldintzak orekatzen lagunduko dituen neurri bereziak behar dituela, eta hizkuntza-liberalismoaren edo hizkuntzen arteko berdintasunaren aldarrikapenak gutxituaren hondamendia ekarriko lukeela. Hizkuntza-sistemaren aleren bat galtzeko zorian badago ere, kezka nabarmenik ez dago; ez, bederen, *adostasun-maila bat lortzeko* bezain handia, Aморrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreñak diotenez.

3. HIZKUNTZEN EKOLOGIAREN BENCHMARKING-A HIZKUNTZEN MERKATUAN

Indarrean dauden hizkuntzen gaineko diskurtsoak eta hizkuntza-irudikapenak behin aztertuta, galdera hau egin behar dugu: *Zein da ikuspuntu ekologikoaren benchmarking-a edo kokapena hizkuntzen merkatuan?*

Ikuspuntu ekologikoaren **benchmarking** analisisa horrela ulertzen dugu hemen: Hizkuntzen inguruko diskurtsoen mapan, hizkuntzen ekologiak duen kokapena zehaztea, aldi berean kokagune horren onurak eta kalteak azpimarratuz.

3.1. Hizkuntza-diskurtsoak

Bigarren atalean ikusi ditugun informazioak horrela labur ditzakegu:

- 1) Ikuspuntu ekologikoak ez du pisu konparatibo handirik euskara ikasteari ekiteko unean, eta erabaki horretan nagusitzen diren planteamenduak (identitarioak eta pragmatikoak, bereziki) lekutan daude hizkuntzen ekologiaren ikuspuntutik.
- 2) Neska-mutikoek ere gizartean nagusi diren planteamenduak barneratu eta errepikatzen dituzte. Alegia, euren hizkuntza-balioen sozializazioa erabat arrakastatsua da, gaur egun gizartean nagusitzen diren balioekin bat egiten dutelarik.

- 3) Estatu-nazioaren hizkuntza *bakarraren* hiztunek (erdaldun elebakarrak) euskarekiko axalezko begikotasuna adierazten duten arren, ez dituzte beren egiten hizkuntzen eredu sistemikoaren ikuspuntuak aldarrikatzen dituen hizkuntza gutxituagoekiko begirune eta bermearen premiak; izan ere, Estatu-nazio baten hizkuntza nagusiaren hiztun elebakarrak diren aldetik, beldur dira beste hizkuntzek aurrera eginez gero, egunerokoan aukera batzuk galduko dituztela, horren ondorioz, kaltetuta suertatuz.

Beraz, euskararen aldeko arrazoi nagusiak identitarioak eta pragmatikoak ditugu gehienbat, euskararen aldeko ahaleginetan horiek egin dituzten ekarpenak eta, aldi berean, agertzen dituzten mugak barne direlarik.

Izan ere, euskararen aldeko arrazoi identitarioak, EAEn batez ere, euskal nazionalismoaren eskutik bultzatu ziren, Estatu-nazioaren eskema euskarari atxikiz: euskara euskal nazioaren hizkuntza bakarra da. Hau da, euskararen aldeko aldarrikapenean euskal nazionalismoak Estatu-nazioaren hizkuntza-eredu bera erabili duenez, horren ondorioz euskal nazioaren kide sentitzen ez diiren euskal herritarrek hizkuntza horren defentsatik kanpo ikusten dute euren burua². Egia da, identitatearen inguruko hizkuntza-motibazioek berez ez dutela zergatik abertzaleengan bakarrik eragin behar eta, adibidez, Iparraldeko gizarteko parte batean arrazoi identitarioa eta euskararen defentsa ez dagozkie euskal abertzaleei soilik, frantses sentitzen direnak euskaldun eta euskaltzale aldi berean sentitzen direlako. Baina, azken mendean zehar eta EAEn batez ere, euskal identitatea eta euskararen defentsa espainiar identitateari era gatzelerari kontrajarri zaizkie.

3.2. Hizkuntzen azoka edo hizkuntzak produktu gisa

Hizkuntzak gizarteen funtsezko osagaia dira. Hortaz, gaur egungo gizartean hizkuntzek zer leku hartzen duten zedarritzerakoan, aurretik, egungo gizarte honek zer ezaugarri nagusi duen argitu beharko dugu.

[...] la actividad de consumir se ha convertido en una suerte de plantilla o modelo para la manera en que los ciudadanos de las sociedades occidentales contemporáneas han llegado a considerar todas sus actividades. (Campbell, C., 2004: 41-42. In Bauman, Z., 2007: 162-163).

Gizarte hau kontsumitzailea da beste edozein ezaugarriren aurretik eta kontsumo-jarduera hori gizarte atal guztietara zabalduta, kontsumo-ondasunen edo kontsumo-zerbitzuen itxura pean. Era berean, hizkuntzak ere munduko azoka globaleko eskaintzaren parte bat dira, kontsumitzaia ardatz nagusia bihurtu den gizarteotan. Hiztun elebidun edo eleanitzek, hizkuntzen merkatuan bilatzen dituzten kontsumo-eskaintzak hizkuntza jakin batzuen eskutik jasotzen dituzte, gehienetan. Hiztun elebidun edo eleanitzek, egiten duten produktu edo zerbitzuen hautuan eskaintzarik hoberena edo egokiena bilatzen dute, eskaintzen zaien hizkuntzan eskaintzen zaiela ere. Adibidez: Interneteko zenbait software ingelesez, musika irratsaio bat gatzeleraz, futbol partida bat euskaraz... Garrantzitsuena, gehienetan, ez da hizkuntza bera, baizik eta

2. Adibidez, arestian aipatu dugun bezala, alderdi espainiarrak dira Osakidetza hizkuntza eskakizunak arintzeko Eusko Legebiltzarrean eskatu duten bakarrak.

produkturik edo zerbitzurik hoberen, egokien edo estimatuena kontsumitzaileak esku-ratzea..., zein hizkuntzatan eskainia den erreparatu gabe.

Euskaldun elebidun edo eleanitzei -euskaltzaleak direnak barne- kontsumo-eske-ma horretatik irtetea oso zaila zaigu, eta egiten dugun kontsumo-hautua hizkuntza alde batera utzita egiten dugu, baldin eta hizkuntza horretan gaituak bagara. Areago, gaur egun euskara ez da produktuen edo zerbitzuen aukera zabalenik edota hobere-nik ematen duen hizkuntza, frantsesak, ingelesak edota gaztelaniak ñbesteak beste- eskaintzen dutenarekin alderatuta. Hortaz, hizkuntzen azokan euskara galtzaile..., bere bitartez egiten den eskaintza zabaltzen eta hobetzen ez den bitartean.

4. ONDORIOAK

Arestian azaldutakoa aintzat hartuta, unea iritsi zaigu hizkuntzen ekologia plante-a-menduaren indarguneak eta ahuleziak, aukerak eta mehatxuak ñlabur bada ere- marz-teko.

4.1. Ahuleziak eta mehatxuak

Ohiko sozializazioa: Gizarteak ñedozein gizartek- bere balioak birsortzeko eta be-launez belaun ondorengotaratzeko duen gaitasuna handia da eta balioen irupen ho-rren gakoa sozializazioan datza. Jakina denez, sozializazioan ume eta gaztetxoek zein beste kulturetatik etorri berriak direnek, gizarte eta gizatalde jakinetako kultura ikasi eta bere egiten dute, neurri handian; ez modu itxian, mekanikoan eta deterministan, baizik eta garaian garaiko eta gizatalde zein pertsona bakoitzeko tankera eta ñabar-dura berezituak jasoz.

Transmisio kultural eta identitario horren alor edo dimentsio garrantzitsu bat hiz-kuntzarena da, dudarik gabe (Martínez de Luna 2009: 15-18). Hortaz, egun indarrean dauden hizkuntzen inguruko irudikapenak, balorazioak, kezkak eta abarrak belaunal-diz belaunaldi igarotzeko inertzia handia izango da, nahiz eta transmisio horretan arian-arian aldaketak gertatu.

Hizkuntza-balio eta diskurtsoei dagokienez, egungo sozializazioak Estatu-nazioa-ren balioak birsortzera daramatza belaunaldi berriengan, hizkuntzen ekologiaren ezar-pena gazte horiengan oztopatuz.

Merkatu-balioa: Arestian esan dugun bezala, euskara ez da produktuen edo zerbitzuen aukera zabalenik edota hoberenik eskaintzen duen hizkuntza. Horregatik, hainbat produktu edota zerbitzu erdaraz kontsumitzen da eta, ondorioz, merkatu-balio gutxi duen hizkuntza da euskara.

Ikuspuntu horretatik, egin beharreko galdera hauxe da: Zer eskaintzen die eus-karak euskaldunei, beste hizkuntzetan aurkitzea ezinezkoa zaiena? Bertsolaritza eta nortasun-marka bat, adibidez. Eta ez dira gutxi! Baina bere burua horietan ikusten ez duen euskaldunak (eta euskaldun askok erdaraz lasai egiten dute gehienetan, euskal sentimendua izanik ere) bestelako eskaintza bat beharko du euskararantz erakarra izateko. Ahaleginak eginda ere, ez da erraz aurkitzen hiritar xumeari erakargarri gerta litzaiokeen gauza askorik euskaraz soilik, kontsumora emanda dagoen gure gizarte honetako parametroetan, behintzat.

Gizarte axolagabekeria: Ahaztu ezinezkoa da euskal gizartearen lehentasunetan euskara ez dela sartzen; gizartean nagusitzen den euskararekiko jarrera aldekoa izanik ere, jarrera hori pasiboa da, gehienbat, ez konprometitua edo militantea.

Hizkuntza gutxiagotu baten hitzun-taldeak ez badu erabateko parte hartzerik bere hizkuntzaren defentsan, oso zaila izango zaio aldeko diskurtso berri bati hedapena eta arrakasta lortzea.

4.2. Indarguneak eta aukerak

Sozializazio mota berria: Sozializazioa hizkuntzen ekologiak topa ditzakeen ahulezietan aipatu dugun arren, sozializazio berriaren eskemak gero eta malguagoak eta irekiagoak direla ezin dugu ahaztu, Bourdieu eta Bauman-ek dioten bezala:

Ámbitos cada vez más extensos de la conducta humana han sido exonerados del ordenamiento, la supervisión y la vigilancia no sólo estrictamente sociales, sino también de toda autoridad que pueda refrendarlos y sancionar oficialmente las transgresiones. Así, una cantidad cada vez mayor de responsabilidades que antes se socializaban, ahora recaen sobre los individuos. En un entorno desregulado y privatizado que se centra en las preocupaciones y los objetivos de los consumidores, la responsabilidad de las elecciones, las acciones posteriores a esas elecciones y sus consecuencias descansan pura y exclusivamente en los hombros de los actores individuales. Como lo señaló Pierre Bourdieu hace ya dos décadas, la coerción ha sido ampliamente remplazada por la estimulación; los patrones de conducta obligatorios, por la seducción; la vigilancia de comportamiento, por las relaciones públicas y la publicidad, y la regulación normativa, por el surgimiento de nuevos deseos y necesidades. (Bauman, 2007: 124).

Horren ondorioz, hizkuntza-sozializazioa ere zaluagoa, bigunagoa, samurragoa da, hizkuntza-erabileraz gizabanakoak berak hartzen dituen erabakiak libreagoak izanik. Sozializazioak ez du horren kutsu primordialista jada, konstruktibismoaren ildotik abiatu da-eta.

Baliteke, beraz, elebitasun sozialeko egoeretan (benetako elebitasuna posiblea balitz, behintzat) hizkuntzen arteko harreman-eredua Estatu-nazioarena ez izatea halabarrez, eta hizkuntzen ekologiaren mezuak dituen hedatzeko aukerak handiagoak izatea. Baldin eta askatasun horretan kontsumoaren atzaparretan erori ez, eta euskaldun elebidunak bere aukerak euskararen alde jartzen badu.

Naturaren eredua: Naturaren ekologiari hartua eta hizkuntzen arlora moldatua izan den kontzeptualizazioak (espezie guztiek lekua duten sistema orekatua, arriskuan dauden espeziek sistemaren beraren iraupena arriskuan jartzen dute eta abar) lagundu dezake hizkuntzen ekologiaren eskema gizartean errazago hedatzen, gero eta handiago den sentsibilitate ekologiakoari esker.

Dena den, Lurra Planetaren biziraupenak muga argi batzuk ezartzen dizkio naturaren suntsipenari oreka ekologiakoaren premia horrela areagotuz; hizkuntzen eta kultura aniztasunaren hondamendiak, aldiz, ez du muga objektiborekin topo egiten. Ekologiaren eredua hizkuntzen mundura ekarrita, aniztasunak dituen arriskuak ulergarriagoak egin ditzakeen arren, ikuspuntu berri hori indarge eta aplikaziorik gabe gelditi daiteke dinamika globalizatu eta homogenizatzailearen aurrean.

Ideologiarik eza: Gehiegi litzateke esatea ikusmolde ekologiakoak ez duela bere baitan ideologiarik gordetzen. Hala ere, Euskal Herrian kokatuta, hizkuntzetan bete

-betean eragiten duen ideologia beste bat da: euskal *versus* espainiar nortasunena, hain zuzen. Horregatik -lehenago esaten genuen bezala-, nazio-identitatean oinarritzen den aldarriak balio du euskal nazioaren identitatea partekatzen dutenentzat, baina neurri eta aldi berean euskaratik urrunarazten ditu gehienbat espainiar nortasundun sentitzen direnak.

Hizkuntzen ekologiak, nortasun-dikotomia horretatik kanpo dagoenez, eskura ditu ere euskal nazio-identitatearen planteamenduak atxikitzen ez dituen gizarte sektoreak.

Hala eta guztiz ere, aukera bezala aurkezten dugun ideologia falta horrek, badu alde iluna: bere ahultasun erlatiboa alegia, nazio-ideologia gizatalde eta pertsonen jardueran duen indarrarekin alderatuta, bederen.

Globalizazioa: Ohikoa denaren kontra, globalizazioak bultza dezake hizkuntzen ekologiaren ikuspuntua, azken hori lehenengoaren joera homogenizatzaileari eta aniztasunaren mehatxuari erantzun gisa ulertuta.

Hortaz, globalizazioa unibertsala den aldetik, joera horri aurre egin nahi dion hizkuntzen ekologiaren planteamendua ere unibertsala da. Bestela esanda, euskaltzaleak ez daude bakarrik euren hizkuntza gutxiagotuaren defentsan, munduan barna hedatzen ari den aldarrikapen baten bertako adierazpena delako. Horrela, hizkuntzen ekologiaren planteamenduak nazioarteko errealitatea eta irudia darenmatza eta horrek erakargarriagoa egin dezake planteamendu hori gizarte sektore batzuen begietara, gazteen artean, adibidez. Ez da *provincianismo* atzerakoi baten aldarrikapena, baizik eta globalizazioari aurre egiten dioten nazioarteko bidegileena.

Elkarbizitza: Yukio Tsuda japoniarraren aipamenean ikusten genuen bezala, hizkuntzen ekologiaren funtsa elkarbizitza baketsu baten balioak dira:

1. punto de vista que respeta los derechos humanos.
2. igualdad en comunicaciones.
3. plurilingüismo.
4. conservación de lenguas y culturas.

Besteak beste, balio horiek ere badira Euskal Herriaren normalizazio politikoaz eta elkarbizitzaz hitz egitean aipatzen direnak. Herri hau dagoen ataka gaiztotik aterako bada, elkarbizitzarako beharrezkoak diren balioak indartzearen eskutik izango da. Bistan da hizkuntzen ekologiaren balioak bete-betean sartzen direla ildo horretan.

4.3. Laburbilduz

Beste faktore askok euskararen etorkizuna erabakitzen parte hartuko dutela batere ahaztu gabe, Hizkuntzen Ekologiaren ikuspuntuari erreparatuta egiten dugun ahulezien eta indarguneen azken balantzea:

- Ohiko sozializazioak, merkatu balioak eta -batez ere- gizarte axolagabekeriak zamatzen dute hizkuntzen ekologiaren hedapena eta arrakasta. Horiek guztiak dira Damoklesen ezpata bezalakoak, euskararen lepoa mozteko prest daudenak.
- Aldi berean, sozializazio eredu malgua, naturaren eredua, ideologiarik eza, globalizazioa eta elkarbizitza dira euskara bezalako egoeran dagoen hizkuntza bati

lagun diezaiket baldintzak. Hortaz, Damoklesen ezpatari aurre eginez, beste ezpata batzuk ere airean daude euskararen etorkizun oparoa ziurtatzeko prest.

5. BIBLIOGRAFIA

- AMORRORTU, E.; ORTEGA, A.; IDIAZABAL, I.; BARREÑA, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurilaritza-Gobierno Vasco.
- BAUMAN, Z. (2007). *Vida de consumo*. México, etc. Fondo de Cultura Económica.
- BAXOK, E. et al. (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran - Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI*. Donostia-San Sebastián. Eusko Ikaskuntza-Sociedad Estudios Vascos.
- COYOS, B. (2009). Hizkuntza Ukipena eta soziolinguistika klusterra. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. [http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152063\(azkenkontsulta: 20/2012.05.04\)](http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152063(azkenkontsulta: 20/2012.05.04))
- Elcorreodigital (J.M.IVITORIA)(27-10-2009)<http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/20091027/pvasco-espana/camara-vasca-pide-valorar-20091027.html>
- Erabili.com / Bestelakoak / 2009-05-18. http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1242630401
- HERNÁNDEZ, J. M. (2000). Gaztetxoek hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizipenak. In Martínez de Luna, I. y Berrio-Otxoa, K. (Zuz.). *Etorkizuna Aurreikusten 99: Gaztetxoak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz. Martínez de Luna (Argit.) (9-96).
- MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2009). Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna. In Alkorta, K. eta Barrutia, E. (Argitaratzaileak): *Transmisioa eta erabilera*. (XIII. Jardunaldiak). Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbo (11-41).
- MORENO Cabrera, J.C. (2008). *El nacionalismo lingüístico: una ideología destructiva*. Barcelona: Península.
- NOTICIAS de Gipuzkoa. Miércoles, 02 de septiembre de 2009. <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/ediciones/2009/09/02/sociedad/gipuzkoa/d02gip10.1577058.php>
- PHILLIPSON, R. (12.10.2009) Lenguas Internacionales y Derechos Humanos Internacionales. *Asociación Chilena de Esperanto*. http://www.esperanto.cl/es/lenguas_internacionales.
- SUBERBIOLA, P. (2008). 1.5. Hizkuntza Garapen Iraunkor Baterantz. In *Hiznet Hizkuntza Plan-gintza graduondoko Ikastaroa*. Asmoz Fundazioa eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- UZEI-Sociolinguistika Klusterra-Hizkuntza Politikarako Sailordetza. (datarik ez, argitaratu gabe). *Sociolinguistika Hiztegia - Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*. Lexikoa SL hiztegia 20090318-UZEI-SLK-HPS.doc.